

AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK

2022-2023

AUKERATU AMURRION ZERTAN INBERTITU



Amurrioko Udalak
“AmurriokoEKIN”
prozesua jarri du
martxan, **erabaki**
dezazun
430.000 € zertan
inbertitu:

2022

215.000 €

48.000 €-tik beherako
aurrekontua duten
proposamenetarako.

2023

215.000 €

48.000 eurotik gorako
aurrekontua duten
proposamenetarako.



AMURRIO
UDALA
AYUNTAMIENTO

AURREKO PROZESUETAKO PROPOSAMEN IRABAZLEEN EGOERA

2017-2018 PROZESUKO PROPOSAMEN IRABAZLEAK

AURREKONTUA	EGOERA
Jolasgunea sortzea Zabaleko eta Mendiko ikastetxeetan eta AEKren eraikin zaharra eraistea.	169.500 € EGINDA
Amurrioko argiteriaren hobekuntza orokorra, argiteria-planaren arabera.	200.000 € EGINDA
Amurrioko arkitektura-oztopoak kentzea, Irisgarritasun Planaren arabera.	30.500 € EGINDA

PROPUESTAS GANADORAS PROCESO 2019-2020 (>5000€)

AURREKONTUA	EGOERA
Konponbide integrala Etxegoien kalean, aparkaleku bat sortuz eta kaleko aparkalekuko bi ilaretako bat kenduz. JATORRIZKO PROPOSAMENA PROIEKTU ZABALAGO BATEAN TXERTATU DA, ETA PROIEKTU DESBERDINEN SINERGIAK BALIATU NAHI DITU, ARMURUKO ERREKAREN INGURUAN ZAHARBERRITZE EKOLOGIKOKO ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SUSTAPENEN PROIEKTU INTEGRALA LORTZEKO. APARKALEKUAZ GAIN, ERREKAREN INGURUMENA LEHENGORATzea, IKASTOLA, INSTITUTUA ETA HIRIGUNEA LOTUKO DITUEN BIDEGORRIA ERAIKITzea ETA INGURUKO ERAIKINETAKO UR BELTZAK BILTzea AURREIKUSTEN DA.	Jatorrizko aurrekontua 300.000 € Aurrekontu eguneratua 480.000 € PROIEKTUA IDAZTEKO FASEAN
24 orduko kamerak jartzea udalerriko segurtasun-arazoak dauden gunen estrategikoetan.	30.000 € HASI GABE
0 eta 12 urte bitarteko ludoteka bat prestatzea hainbat espaziorekin. JATORRIZKO PROPOSAMENA HAU RTZAINDEGI BAT IZAN ZEN ESPAZIO BAT HOBETZEA ZEN, ETA, BERAZ, ESKAINTZA BIRMOLDAKETA GISA BALORATU ZEN. ONDOREN, PROPOSATUTAKO LEHEN KOKAPENA ZEHATZ-MEHATZ AZTERTU ONDOREN, BESTE KOKAPEN ZENTRIKOAGO BAT AUKERATU ZEN, LUDOTEKARI BALIO HANDIAGOA EMANGO DIONA.	Jatorrizko aurrekontua 38.000 € Aurrekontu eguneratua 164.999 € LIZITAZIO-FASEAN, EXEKUZIO-PROIEKTUA
Amurrioko bidegorrien sarea hobetzea.	32.000 € GAUZATZEN

2019-2020 PROZESUKO PROPOSAMEN IRABAZLEAK (<5000€)

AURREKONTUA	EGOERA
Iturriak jartzea Zabalibar kaletik gertu dagoen parke linealean.	4.800 € EGINDA
Udako igerilekuan mahai gehiago jartzea.	3.000 € EGINDA
Baranda udaletxeko plazako farmaziako eskaileretan.	750 € EGINDA
Liburutegirako hiru ordenagailu berri erostea.	3.500 € EGINDA
Ispilu bat jartzea Juan Aranoaren (Alkinar) irteera hobetzeko.	600 € EGINDA
Abiadura 30 km/h-ra jaistea Amurrioko sarreran/irteeran, Landaburu/San Joseetik.	4.600 € EGINDA
“Mariaren bidean” (Cerrajería kalea) eserlekuak jartzea.	3.000 € HASI GABE
Bizikleta-lekua, Refor inguruko poligonoan (Kirtana zentroa).	2.000 € EGINDA
Nagusien Etxeko jardueretarako musika ekipoa.	4.100 € EGINDA
Proiektorea Nagusien Etxean.	800 € EGINDA
Paperontziak ipintzea Iparraldeko atzealdean, Olakoibar/Abiaga aldera.	4.500 € EGINDA

PROZESUAREN FASEAK

Aurreko urteetan bezala, martxan jartzen den prozesuak **4 FASE** izango ditu. Lehenengoan (orain abian jartzen dena) datozen bi urteetarako inbertsio-proposamenak egin ahal izango dituzu.

1. FASEA

Proposamenak aurkeztea

Urriak 20
2021eko azaroak 2

2. FASEA

Proposamenak lehenestea

2021eko azaroa

NOIZ AURKEZ DITZAKET PROPOSAMENAK?

Proposamenak aurkezteko epea **urriaren 20tik azaroaren 2ra bitartekoa** da.



3. FASEA

Proposamenen bideragarritasunaren azterketa

2021eko abendua

4. FASEA

Proposamen finalistaren bozketa

Urtarrila 2022

ZER PROPOSAMEN MOTA AURKEZ DAITEZKE?

Amurrioko udal-eskumeneko alderdiei buruzko inbertsio-proposamenak aurkez daitezke; hau da, Udalak eraiki, berritu edo eros dezakeena.

Proposamenek interes orokorrekoak izan beharko dute, eta guztien onura zaindu beharko dute.



NORK AURKEZ DITZAKE PROPOSAMENAK?

Amurrion erroldatuta dagoen eta 16 urte edo gehiago dituen edozein pertsona. Era berean, elkarteek eta kolektiboek ere proposamenak aurkez ditzakete, aipatutako ezaugarriak betetzen dituen pertsona baten kontaktua adieraziz.

NON AURKEZTUKO DUT PROPOSAMENA?

Honako bide hauen bidez parte har dezakezu:

- **Postontziak** udaletxean, kiroldegian eta kultur etxean.
- **Herrilaguntzaileei** entregatuko zaie parte hartzeko aldian.
- **On-line**, www.amurriokoekin.eus helbidearen bidez.
- **Posta elektronikoz**, formularioa beteta honako helbide honetara bidalita: partehartzea@amurrio.eus
- **QR:**



ESKERRIK ASKO ZURE PROPOSAMENAGATIK!

INFORMAZIO GEHIAGORAKO

www.amurriokoekin.eus
partehartzea@amurrio.eus
945 891 161